

Noaia!!

www.noaia.com



Asteburu honetan,
Inauteri Jaia



Ugartondon, 48 etxebizitza

Babes ofizialeko 168 etxebizitzaren zozketa egiteko
lehen urratsa eman da




Olarriondon, 120 etxebizitza

Urtinea Lorategia



Aukera zabala:

- * Bertako sagar batietoleak
- * Udareondok, gerezindok, arandok, intxaurondok, pikandok kikiak, kiwiak
- * Fruitu bakidun zuhaitzak: mugurdak, andetemahotsak, teilak



**Berogailuetarako
gasoil zerbitzua
prezio onenean**



Alkartasuna

Nékezeriye
Kooperatiba
Eikerte

**etxez
etxeko
banaketa**

Eskaerak telefonoz: ☎ 943 361 114 edo kooperatiba bertan

Alkartasuna

Badok Amairu !!

Iñigo eta Iban Etxaniz: "Herriko lekurik ederrena, Harane"

Lehen aldiz, anaiak eta bikiak diren lbi herritar dira atal honetako protagonistak. Bakoitzari une ezberdinetan egin zaizkie galderak. Erantzunetan ere antzekotasunik ba ote?

1. JAKIRIK GOGOKOENA.

Iban Etxaniz. Makarroiak tomatearekin.

Iñigo Etxaniz. Txuleta patatekin.

2. OHITURA TXARREN BAT.

Iban. Ohera berandu joatea.

Iñigo. Lo asko egitea.

3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELAN?

Iban. Gauza asko; mugikorra, mukizapia, giltzak, gida baimena eta dirua.

Iñigo. Ezer ez. Dena poltsan.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?

Iban. Futbolari argentinar batengan.

Iñigo. Arrano batengan.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?

Iban. Armiarma handi eta hanka askokoei.

Iñigo. Istripuei.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.

Iban. Ama, aita, neska laguna eta nire "repea".

Iñigo. Aita, ama eta anaia.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...

Iban. Lagunik eta familiarik gabe.

Iñigo. Hilabete bukaeran kobratu gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.

Iban. Taberna genuenean, arratsaldetik futbol partidak ikusi ondoren, taberna itxi eta goizaldera arte Unai eta Cule-rekin Boca Juniors-River Plate neurketa ikustea.

Iñigo. Borda, Unai Lataillade eta abarrekin futboleko jokatzeari.

9. LIBURU BAT.

Iban. Egunkaria irakurtzen dut.

Iñigo. Anaiak nire ordezkariak irakurtzen du.

10. FILM BAT.

Iban. "Rocky IV" eta "Bar Coyote".



Iñigo. "Rocky IV".

11. LEKU BAT.

Iban. Menorca.

Iñigo. Usurbil.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.

Iban. Harane.

Iñigo. Harane.

13. Urtaro bat.

Iban. Udara.

Iñigo. Udara.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordenberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarreko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubada, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manizidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubada, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA! IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA! ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

ASTEBURU HONETAN, INAUTERI JAIA **5. OR.**

UDAL AURREKONTUEN BALORAZIOAK **6. OR.**

OLARRIONDO-UGARONDO PROMOZIOAK **8. OR.**

EUSKARAREN ERABILERA DATUAK **10. OR.**

JAIKI.ORG WEBGUNE BERRIA **12. OR.**

NOAUA! TXIKI **14. OR.**

LARUNBATEAN, ORIAKO JAITSIERA **15. OR.**



Usurbilgo Udala




Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UNAI AGIRRE

Zubieta bizirik behar dugu

Gaur nire estreinako eguna dut atal honetan. Ez naiz idazle, ezta filosofo ere. Ez dut esaldi handirik sortuko, baina nire inguruari, nire gizarteari adi-adi begiratzen diot. Eta horri buruz idatziko dut.

Eta inguruan ikusten dudana, Zubieta da. Utzikeriaz agian, Usurbil eta Donostiako mugak ez zehazteagatik seguru, herri hau ahaztuta izan dute bereganatuta duten 2 udalek. Eta horrek gorde dio Zubietari bere antzinakotasun itxura. Duela urte batzuk arte, ia-ia XIX. mendeko nekazari herrixka bat zirudien. Kostata, baina etxe batzuk egin zituzten, Zubietako seme-alabak kanpora joan behar ez zitezen.

Baina orain badihiru Donostiak bere garaian Altzarekin egin zuena, Zubietarekin ere egin nahi duela. Hasteko 2 mila etxe, kartzela, errepideak eta nola ez, errauskailua. DESARROLISMOA, politika absurdoa. Donostian 14.000 etxe huts egonda, zertarako gehiago eraiki? Kartzela ere hona ekarri nahi digute, oraingoaren tokian etxe gehiago egiteko. Eta azkenik errauskailua, gezur jario handiarekin babestua. PNV, PSE eta EA-k erabaki dute, eta ez teknikoek, Gipuzkoako zabor guztiak toki bakarrean kudeatu behar direla, eta sistema errausketa izan behar duela. Segurua omen da, baina ez dituzte bakoitzaren herri inguruan nahi, eta gai honen inguru-

ruko medikuen txostenak ezkututzen dituzte. Ez omen dago alternatibarik, baina ikusi dute Europako toki askotan mar-txan ari direla. Eta ez digute esaten non joango diren gai toxiko eta arriskutsuentzako errautsen eta eskorien zaborte-giak. Usurbilgo Alkateak ere defendatzen du sistema hau, birziklatu ondoren gelditzen dena erretzeko. Horrela bada, zergatik ez dira gaurtik hasten zabor poltsaren %41 den materia organikoa konpostatzen? Eta ontzien berrerabilpena sustatzen? Eta birziklatzeko arazoak ematen dituzten ontziak debekatzeko? Hau guztia eginda, ezinezkoa litzateke errauskailu bat, bestela argi esan dezatela zenbat tona erreko litzuzkeen, eta hortik aterako ditugu kontuak.

Garapena Zubietarentzat etxebizitzak egitea da, baina gutxinaka gutxinaka, beharren arabera. Garapena Zubietarentzat da enpresak izatea, baina bere neurrikoak; kalitatezko nekazaritza, abeltzaintza, nekazal turismoa, sagardogintza... Azken finean, ez dute Zubieta garatu nahi, ordeztu baizik, orain dagoena akabatu.

Usurbilgo alkateak ezin du egon bere partiduen aginduen menpe, Usurbil eta zubietarron nahia betetzeko baizik; azken finean haien ordezkari izan beharko litzateke, eta ez bere alderdiko nahiak inposatzeko jauntxo.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Unai Agirre

Hemeroteka

Martxoaren 10ean mobilizatzeko deia

Eskubide zibil eta politikoen defentsarako «une kritikoa» dela jakitun, abian jarritako auzibide politiko guztiak orain eteteko eskatu zuen 18/98+ lan taldeak, atzo (pasa den larunbatean, alegia) Bilbon egindako ekitaldian. Jose Maria Aznar Espainiako gobernuburu ohiak berriki egindako adierazpenak gogoan, eskari hori egin zuen Mariano Ferrer plataformako ele-dunak: «Aznarrek orain onartu du Iraken ez zegoela suntsipen handiko armarik. Guk ez dugu nahi hamar urte barru Estrasburgoko epaitegi batek esatea 18/98 auzian ez zegoela frogarik. Orain da epaiketa guztiak bertan behe-ra uzteko unea».

Horretarako, manifestazioa antolatu-ko du 18/98+ lan taldeak Bilbon mar-txoaren 10ean. Manifestazio «gizabidez-

ko, baketsu eta begirunetsua», Ferrerren hitzetan, «baina irmo eta tematia ere bai, oinarritzko eskubideak onartarazi arte, eskubideak egunero defendatu behar baitira».

Ferrerrek esan zuen eskubide zibil eta politikoen aldeko aldarria euskal gizarte osoan hedatu dela, eta horren ondorio-tzat jo zituen Eusko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak egindako adierazpenak, Baltasar Garzon epaileak «bere tesi ospetsuan atzera» egin izana, edo fiskal-tzak onartu izana Egunkaria auziaren ahozko epaiketa abiarazteko froga nahi-korik ez dagoela.

Hala ere, «helmugatik urrutiegi» dau-dela adierazi zuen Ferrerrek: «Oraindik ere, egiteko bat daukagu, eta egiteko hori elkarrekin baino ezin dugu buru-tu».

Ordezkaritza politikoa

Eragile politiko eta sozial ugari-ko parte hartu zuen ekitaldian. Esaterako, alder-di politiko eta Eusko Legebiltzarreko talde parlamentarioen ordezkari-tza zabala egon zen. HAN izan ziren Luke Uribe-Etxebarria EAJko legebiltzarki-dea, Nekane Erauskin Ezker Abertzalekoa, Rafa Larreina EAkoa, Oskar Matute EB-Berdeena, Aintzane Ezenarro Aralarrekoa, Patxi Urrutia Batasunakoa eta Mertxe Colina ABkoa. Irakurritako agirian, sumarioak «bake eta normalizazio politikorako oztopo» bilakatzen ari direla esan zuten, eta epai-ke-ak eteteko eskatu zuten (...).

Gotzon Hermosilla,
2007ko otsailaren 11ko Berrian

Brasildar giroa nagusi larunbatean

Hego Ameriketatik, Brasildik etorriko dira musika eta dantzarako erritmoa eta gogoia. Larunbatean, otsailak 17, herrialde hartako itxura handia hartuko du Usurbilek. BTK perkusio taldea musika jantzeaz arduratuko da. Saio bikoitza eskainiko dute, azken aldian kanta berriak sortzeko hartutako etenaldiaren ondoren. Inauteriak munduan ezagun egin dituen herrialdea jantzieta ere nabarmenduko da. Brasildar itxura eman dezakeen mozorroa soinean duela aterako da bat baino gehiago arratsaldean. Parranda girorako osagaiak ez dira faltako. Goizean, aldiz, etxeko txikiak txanda izango da. Haien txanda joko eta tailerrak prestatu dira. Baita ezustekoren bat ere, bereziki mozorrotuta doazentzat.



AURTENGOAN, BRASILDARRAK IZANGO DIRA PROTAGONISTAK.

Otsailak 17 larunbata, Inauteri Jaia

11:00 Pilotalekuan haurrentzat jokoak eta tailerrak. Amaieran, sorpresatxoa haur eta gazteentzat.

18:30 Koadrila guztien elkartzea eta kalejira herrian barrena. BTK perkusio taldearen saioa.

21:30 Afaria Saizarren (txartelak salgai Irratin, Bentan eta Ardi Beltzen). Afalostean, BTKren saioa.

Antolatzailea: NOAUA! Kultur Elkartea. Laguntzailea: Usurbilgo Udala

Udarregiko ikasleek dantzaz eta musikaz mozorrotuko dute herria

Inauteri festa ikastolako eraikitik herri guneko txoko guztietara zabalduko da ostiral honetan, otsailak 16. Goizean zehar, taldeetan banatuta Lehen Hezkuntzako ikasleek dantza saio bikainak eskainiko dituzte herriko gune ezberdinetan. Eta ohi denez, aipatutako ikasleek, Haur Hezkuntzakoek eta DBHko ikasleek prestatutako ikuskizuna plazara-tuko dute Oiardo kiroldegian. Bazkalostean, DBHkoentzat jaiak jarraituko du, "diskoteka" eta guzti.

ARITZ GORRITI

Otsailak 16, ostirala Inauteriak Udarregi ikastolan

10:00 LH 1, 2 eta 3. mailako ikasleen kalejira: Agerialdeko ikastolatik Estraperlo kalera, Muna Lurra kalea, Puntapaxetik Errekatxo kalera, pilotalekua, Kontseju Zaharra kalea, Alperroburu kaletik Kiroldegira.

Ordu berean, LH 4, 5 eta 6. mailakoen kalejira: ikastolatik pilotaleku aldera, Irazu kaletik Kale Nagusira, errotonda, Belmonte kalea, Kalezar plaza, Puntapax kaletik berriz errotondora eta handik kiroldegira.

11:15 kiroldegian: Haur Hezkuntzako haurrak ikastolatik kiroldegira.

11:25 kiroldegian: LH eta DBHko ikasleen sarrera "Martxa" dantzatzuz.

11:30 kiroldegian: HH, LH eta DBHko ikasleen ekitaldia.

14:30-19:00 DBHko ikasleen jaialdia ikastolan: emanaldiak, "diskoteka".

Errauste-planta Artzabaletan jarri ez dezaten, 30.000 euroko partida aurreikusi da 2007ko udal aurrekontuan

Aurrekontuen memorian oinarrituz, alkatearen balorazioa eta inbertsio nagusien zerrenda argitaratu genituen aurreko alean. Honakoan, alderdi guztietara jo dugu iritzia eske. Dena den, esan behar da aurrekontuak hasieraz onartu zirela; ez daudela indarrean oraindik.

NOAUA! Udal kontu-hartzaileak dienez, aurrekontu proiektuak ez du Lurraren Udal Ondareari buruzko legea betetzen. Cuatrecasas bufeteari eskatutako txostenak, ordea, aurrekontua legezkota dela dio. Zer dela eta errepikatzen da urtero tirabira hau?

Luisuari Ormaetxea alkatea, EA. Gure ustez udal teknikariak ez duelako zuzen interpretatzen legea. Kasu honetan, Zoruaen Lege berriari (2/2006) erreparatuz udal teknikariaren ustez ezin liteke enkanter bidez lorturiko 1.000.000 euro monumentu historikoa den Artzabal baserria zaharberritzeko erabili.

Legearen 115. artikuluan, d) atalean hitzez hitz hau dio: "... los recursos integrantes de los patrimonios públicos de suelo... se podrán destinar a: d) Rehabilitación del patrimonio histórico y cultural".

Beraz, argi dago legea guztiz betetzen dugula. Hala eta guztiz, Artzabalgo proiektua arriskuan ez jartzeko, berme

juridiko handiagoa lortzeko, Cuatrecasas abokatu taldearen aholkua eskatu dugu aurrekontuaren onarpena zertxobait atzeratuz.

N. Honi lotuta, jakin al daiteke zenbat diru gastatu duen udalak Cuatrecasas bufetearen txostenean?

L. O. Arriskuan genuena kontuan izanik, abokatu hauei ordaintzeko aurrekontuaren 0,00025 baino gutxiago erabiltzea, huskeria kontsideratzen dugu eta ondo inbertitua.

N. Errauste-planta Zubietako Artzabaletan ez jartzeko udalak neurri juridikoak hartuko dituela aipatu izan duzu. Aurrekontu berrian aintzat hartu al da neurri horiek bideratzeko behar den partida ekonomikoa?

L. O. Zubietarako hainbat diru partida aurreikusi dira: Herri Batzarraren kudeaketarako, 6.700 euro; Zubietan inbertsioak egiteko, 100.000 euro; Eskola Txikiaren festa antolatzeko, 30.570 euro eta Donostiako udalak errausgailua kokatzeko aurreikusi duen lekuan jarri ez dezaten Usurbilgo udal defentsarako, 30.000 euro.

N. Azkenik, nolatan onartu da aurrekontua otsailean? Gainera, udal gobernu taldeak nagusitasun osoa duenean.

L. O. Nagusitasuna bermatua izateak



MILIOI BAT EUROKO INBERTSIDA EGINGO DU UDALAK ARTZABALEN.

ez du adierazi nahi —ez behintzat gure kasuan— “rodilloa” aplikatzea denik. Lehenago adierazi den bezala juridikoki Artzabalgo baserriaren zaharberritzearekin arazorik ez izatearren atzeratu da onarpena.

Dena den, urte hasierarako aurrekontuak onartuak ez izatea ohikoa izan da Usurbilen, urtetan eta urtetan.

Euskal Herritarrok-ek gehiengo osoa zuenean, 2002. urtean, urtarrilaren 29an onartu zituen; 2000. urtean, urtarrilaren 25ean. Herri Batasunak, gehiengo osoarekin, 1997. urtean, martxoan onartu zituen; 1996. urtean, otsailaren amaieran. Eta alkatetza izan, baina gehiengo osoa ez zuenean, 1995. urtean, apirilean; 1994. urtean, maiatzaren azken egunean; 1993. urtean apirilaren amaieran eta 1992. urtean uztailaren amaieran!

Beraz, hilabete bat atzeratzea, ez da inondik ere zerbait larria.

EAJ-PNV: “Udalaren zorra 30.160 eurotan murriztuko dugu”

2007ko aurrekontua 9.793.774 2 eurotara iristen da. Bere egituraketa EA eta EAJ-PNVren artean sinaturiko programa akordioaren zutabe nagusiekin bat dator. Zutabe hauek austeritatea, gastuaren kontrola eta zuzentasuna dira.

Inbertsio plana 1.371.550 eurotakoa da. Hauetan azpimarragarria da Artzabal baserria zahar etxe bihurtzeko erabiliko den 1.000.000 bat euroko kopurua.

Aurrekontuaren beste atal garrantzitsuak hauek dira:

-Etxez etxeko laguntza %560 igo da 146.000 eurotaraino.

-Kiroldegia berrizatzeko, 75.000 euro.

-Udaltzaingoa eratzeko babes ekipamendu eta moto batentzako, 9.000 euro.

-Eguneko zentroarentzako, 131.430 euro.

-Heziketa zentro ezberdinei 423.737 euroko dirulaguntza.

-Hirugarren mundurako 85.952 euroko laguntza, aurrekontuaren %1.

-NOAUA!, 48.000 euro.

Azkenik aipagarria da aurten udalaren zorra 30.160 eurotan murriztuko dugula.

Etorkizun hurbilean, hirigintza kontzeptuei esker jaso ditzakegun diru sarrearak espero ditugu (zuhurtasunaz jokaturik ez ditugu aurrekontuetan sartu). Sarrera hauei esker eta ahal dugun heinean, kiroldegi inguruan aisialdirako izango den asmo handiko proiektu bat mar-

txan jarri nahi dugu. Proiektu honetan konpoko igerilekua, padel, tenis, skate pistak eta abar ipini nahi ditugu (beti ere diru sarrera, proiektuaren gaitasunak, eta bilakaera kontuan hartuta).

Guzti hauek aurrekontuaren ardatz batzuk besterik ez dira, eta hauez gain gehiago jakin nahi duten usurbildar oro, udaletxetik buelta bat ematera gonbidatzen dugu. Gainera eta garrantzitsuago oraindik, inork udalerriarekin zer ikusirik duen ideia edo iradokizunen bat izango balu, arren eskatzen diogu, berau, helbide elektroniko honetara bidaltzea

(pnvusurbil@euskalnet.net).

Lourdes Jauregiberri, EAJ-PNV

UHL: “Aurten ere, lepo beretik...”

EAk alkatetza ilegitemoki eskuratu zuzenetik ildo bertsua jarraitu dute aurrekontuek, handikeriarena, alegia. Aurtengoak ere 10 milioi euro ingurura iritsiko dira. Baina usurbildarrek jakin behar dute gauza bat aurreikuspenak direla eta oso bestelakoa aurrekontu hori egiaz noraino edota nola betetzen den, batez ere, horrenbeste goraitzen dituzten inbertsioei aurre egiteko diru-sarre-rei dagokionean.

Azken bi urteetakoei begiratzea besterik ez dago izan den desorekaz konturatzeko. Esaterako, hirigintza aprobetxamendutan udalak jaso behar zituen dirutzak ez dira inondik inora jaso (2005ean aurreikusitakoaren %3,65 eta 2006an %19,27 soilik jaso ziren). Horrek esan nahi du benetan hurrengo urtean kobratuko direnekin jokatzeko dutela.

Gero desoreka horiek konpontzeko edo, aurrekontuan egokitzapenak egin

behar dira, gastuak gutxitu edo aurreikusitako zenbait proiektu ez dira gauzatzeko. Adibide txiki gisa, joan den urtean egindako azkenetako kreditu egokitzapenean, besteren artean, euskararen partidatik 17.000 euro eta etxebizitza sozialen konponketarako partidatik beste 20.000 euro murriztu dira abian zeuden hainbat proiektu eta obrei aurre egin ahal izateko.

Gainera, diru horiek lortzeko EAK, bere gobernukide EAJren oniritziarekin udal lur-ondarearen, hau da, herritar guztionak diren lur hoberenak saltzen jarraitzen du (erosi, aldiz, ezer ez) inbertsio ikusgarriak egiteko. Iaz bezala, aurten ere, udal kontuhartzaileak lege-urra-ketaren ustea ofizialki adierazi dio udalbatzari, hortik lortutako diruak berriro udal ondarrera bideratu behar direla-eta. Halere, biek ala biek ontzat eman dute aurrekontua, hori bai, kanpoko abokatu bulego bati (betikoari) beren egitasmoak

bedeinkatuko dituen txostena eginarazita, Usurbilgo udalak idazkaria, besteak beste, horretarako duen arren. Txosten horiek, jakina, ordaindu egin behar dira.

Baina, funtzionatzeko modu hori ohitura bilakatu dela esan dezakegu, txostenak, aholkuak, hitzarmenak eta antzeko lanak, askotan eskatzen baitizkiete kanpokoek; hobeto esanda, ez hain “kanpokoek”, egileen izenei erreparatzen badiegu. Batzuk diru politikak jasotzen ari dira hirigintzako kontratuak pilatuz edo beste udaletarako egindako lanetatik “copiar y pegar” era narratxean egiteagatik, izenak Usurbilgo udalarenagatik ordezkatzeko ere ahaztu egiten baitira. Beste batzuei, berriz, hitzartutako baldintzak bete gabe ere, udal-diruak eman egiten zaizkie, herriko elkarteek xentimo guzti-guztiak justifikatzeko eskatzen zaien bitartean.

Arantxa Manterola, UHL

PP: “Gaurko ogia, biharko gosea”

Udal gobernu taldeak 2007rako onartu dituen aurrekontuak ez ditugu ontzat ematen. Arrazoiak ugariak dira baina nagusienak hauek: alde batetik, ETAKo presoen senideei ematen zaien 15.000 euroko dirulaguntza, zeinak ETArekin biktimak mindu eta gogaitzen dituen. Bestetik, Udalbideri eta EUDELi ematen zaien partida. Interes publikoa duen EUDEL erakundea eta partidista den Udalbide erakundea parekatzen dira, Udalbidek soilik helburu abertzaleak bilatzen dituen erakundea bada ere.

Hirugarren arrazoiak, gastu munizipala aldatzeko EAK eta PNVk osatzen duten gobernuak erakutsi duen gaitasun eza. Usurbilek ezin du ohiko sarrearen %10a baino gehiago inbertsioetara zuzendu. Hori oso gutxi da. Inbertsioetarako pol-tsa erabilgarria bikoiztea litzateke nor-

malena. Usurbilen eskubi abertzaleak agindu duen lau urteotan ez da arazo honi aurre egiteko saiakerarik ikusi eta horrela iritsi gara 2007ra, non aurrekontuan soilik 1,6 milioi euro izango diren inbertsioetarako.

Aurreko bi urtetan urtero hiru milioi euroko inbertsioak egitea lortu zuten, baina udala inoiz baino gehiago zorpetzen joan zen; aprobetxamendu urbanistikoak gastatuz eta lur zoru publikoa besterenduz. Ezker abertzalearen kudeaketa garaitik jasotako funtzionamendu gastuen kopurua murrizteko ez da inolako erreformarik egin eta ez-ohiko sarre-rak gastatzera mugatu da udal gobernu taldea. Gaurko ogia, biharko gosea.

PP alderdiarentzat ere, oso negatiboa da udal kontu-hartzaileak eta alkatearen arteko polemika. PPk uste du bien arteko eztabaida hori antzua dela ez duelako

inora eramaten. Alkateak ez du gai hau ondo bideratzen jakin. Informe eta kontraintforme juridikoak ari dira elkarri jaurtikiz, eta bien bitartean babes ofizialeko etxebizitzaren beharra zein den jakiteko txostena enkargatzea ahaztu du alkateak.

Babes ofizialeko etxebizitzaren eskaera betetzeko planifikatutako operazio urbanistikoak martxan badaude, ez dakigu zergatik ezin diren operazio urbanistikoetatik datozen poltsa publikoak erabili beste behar garrantzitsua batzuetan inbertitzeko, zahar etxeetan, kirol instalazioetan, leku publikoetarako sarbideak hobetzen, hobekuntza sozialetan... Kontu-hartzailearekin polemikan aritzea baino, horiek izan beharko lirateke EA-PNV gobernuaren kezkak.

Manuel Michelena, PP (erredakzioan itzulita)

PSE-EE, udal aurrekontu proposamenaren aurka

PSE-EE alderdiari ere, 2007ko udal aurrekontuen inguruko balorazioa eskatu zitzaion ale honetarako. Baina edizioa ixterakoan, oraindik jaso gabe genuen Amaya Goyaran alderdi sozialistako bozeramalearen idatzia.

Otsailaren 2ko ezohiko udalbatza plenoan, dena den, 2007ko udal aurrekontu proposamenaren aurka azaldu zen. Plenoan bertan, honela arrazoitu zuen alderdi sozialistaren aurkako botoa: “lau urte daramatzagu lurzoru

publikoa saltzen eta ez erosten”. Honi lotuta, eskaera bat egin zuen: “aurrekontu honek lurzorua lege berriak adierazten dituenak bermatzea gustatuko litzaiguke”, gaineratu zuen Amaya Goyaran PSE-EEko zinegotziak.

Olarriondo eta Ugartondoko etxebizitzaren zozketak egiteko lehen urratsa eman da

Olarriondon 120 eta Ugartondon 48. Babes ofizialeko 168 etxebizitzak azken fasean sartu dira. Etxebizitza hauen zozketa eta esleipena arautuko duten baldintza orriak ontzat eman ditu udalbatza plenoak. Hau lehen urratsa baino ez da izan. Orain, ezarrita dagoen prozedura jarraituko dute Olarriondo eta Ugartondoko promozioek. Epe laburrean, izena emateko zerrendak zabalduko dira. Etxebizitza tasatuen zozketa arautuko duen udal ordenantza ere onartu berri du udalak. Olarriondon beste 120 etxebizitza izango dira tasatuak; Ugartondon beste 48.

Babes ofizialeko etxebizitzak, guztira, 168 izango dira. 120 Olarriondon, 48 Ugartondon. Etxebizitza horien guztien kopuru bat, sektore sozial hauen artean esleituko da: gutxitu fisikoak, Artzabalgo babes ofizialeko promozioan itxaron zerrendan geratu zirenak, familia ugariak, hiru pertsonaz osatutako unitate konbentzionalak, adin txikikoak kargupean dituzten unitate monoparentalak... Baina gehienak, lehen etxebizitza baten bila dabilzan gazteentzat izango dira. Batzuk zein besteak, zozketa bidez esleituko dira.

Babes ofizialeko etxebizitzetan izena eman nahi dutenek, zehazten diren oinarriak bete beharko dituzte. Besteak beste:

-Adinez nagusi izan, etxebizitza pre-



OTSAILAREN 8KO EZOHICO UDALBATZA PLENOAN ATERATAKO ARGAZKIA.

mia izatea (ez duela aurretik beste etxebizitzarik bere izenean).

-Usurbilen 8 urtez erroldatuta egotea (edo aldizka izan bada ere, gutxienez 15 urtez Usurbilen erroldatuta egon izana).

-Diru sarrerak, gutxienez, 9.000 eurokoak izatea. Gehienez, 33.100 euro. Gutxitu fisikoen kasuan, mugimendu urria dutenek 3.000 euroko diru sarrera frogatzearekin nahikoa izango dute.

Etxebizitza tasatuak ere zozketa bidez esleituko dira

Babes ofizialeko etxebizitzaren esleipenean parte hartzeko, eskatzaileek zozketan parte hartzeko eskaera bete

beharko dute. Eskaera-orria bere garaian argitaratua izango da.

Baina albistearen hasieran aipatu dugun bezala, etxebizitza tasatuak ere egingo dira Olarriondon zein Ugartondon. Olarriondon, babes ofizialeko 120 etxebizitza egingo dira eta tasatutako beste 120 etxebizitza. Ugartondon, babes ofizialeko 48 etxebizitzetaz aparte, tasatutako beste 48 etxebizitza egingo dira. Etxebizitza tasatuen inguruko udal ordenantza ere onartu berri du udalak. Babes ofizialeko etxebizitzak bezala, tasatutakoak ere zozketa bidez esleituko dira epe laburrean.

IMANOL UBEDA _____

Udalbatzak hasierako onespina eman die zozketen oinarriari

Olarriondo eta Ugartondo eremuetan babes ofizialeko 168 etxebizitzaren zozketan parte hartzeko oinarriari hasierako onespina eman zitzaion otsailaren 8an egin zen ezohiko udalbatza saioan. EA eta EAJ-PNV alderdietako ordezkariak aldeko botoa eman zuten; PP abstentitu egin zen; PSE-EEk aurkakako botoa eman zuen.

Horrekina batera, udal etxebizitza-tasatuak arautuko dituen udal ordenantza ere onartu zen. EA, EAJ eta PP

alderdien aldeko botoekin onartu zen tasatuen udal ordenantza. PSE-EE abstentitu egin zen.

Alderdi Sozialistako Amaya Goyaranek diskriminatzailatzat jo zituen babes ofizialeko etxebizitzaren zozketarekin lotutako zenbait oinarri; hala nola, gutxienez zortzi urtez herrian erroldatuta egon beharra izatea. Hain zuzen, etxebizitza eskubidea hainbat herritarrei murrizten zaiela adierazi zuen. Adibidez, herrian lan

egin baina bizi ez direnei. Gobernu taldearen aldetik, alkateak alde aurretik egindako sondeo bati erantzunez lehentasuna usurbildarrei ematea erabaki zutela adierazi zuen.

Hemendik aurrerako prozedura behar bezala joanez gero, etxebizitzaren zozketa legeagintzaldia amaitu baino lehen egitea aurreikusten duela adierazi zuen Luismari Ormaetxea alkateak.

ARITZ GORRITI _____

Zozketak egin arteko prozedura

Otsailaren 8ko ezohiko udalbatza plenoan, hasieraz onartu ziren babes ofizialeko etxebizitzak nahiz etxebizitza tasatuak esleitzeko (adjudikatzeko) oinarriak. Urrats garrantzitsua. Epe laburrean egingo dira zozketak. Baina zozketan parte hartu ahal izateko oinarrietan ezartzen diren baldintzak bete behar dira. Baldintzak betetzeaz aparte, zozketan parte hartzeko izena ere eman behar da. Baina urrats bakoitza bere garaian eman beharko da. Hemen duzue zein izango den prozedura, era arinean azaldua. Informazio zehatza udaletxean bertan jasoko duzue.

1. Oinarriak jendaurrean

Otsailaren 8an udalak onartu zuen oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da (sarean, honako helbidean topatuko duzu aldizkari horren *on line* edizioa: www.gipuzkoa.net helbidean sartu eta bertan erraz aurkituko duzu "Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala" izeneko atala). Oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik hasita, 15 egunez jendaurrean egon behar dute, araudiak hala diolako. Iragarki bera, udaletxeko iragarki taulan ere ezarriko da. Jendaurreko 15 eguneko epe horretan alegaziorik aurkeztuko ez balitz, oinarriak behin betikoz onartutzat joko lirateke.

2. Zozketan parte hartzeko epea

Oinarriak behin betiko onartuta geratzen direnean, zozketan parte hartzeko epea zabalduko da. Izena emateko epea 15 egunekoa izango da.



ETXEBIZITZEN ZOZKETA LEGEALDI HAU AMAITU BAINO LEHEN EGIN DAITEKE.

3. Eskara guztiak aztertu

Udalak eskaera guztiak aztertuko ditu banan bana eta zozketan parte hartuko duen zerrenda osatuko da.

4. Lehen zozketan, etxea lortu dutenen zerrenda osatuko da

Behin zozketan parte hartuko duen zerrenda osatu eta gero, lehen zozketa egingo da. Lehen zozketa honetan, etxebizitza lortu dutenen izen-abizenak ezagutuko ditugu (itxarote-zerrenda zein izango den ere zehaztuko da).

5. Bigarren zozketan, etxea lortu dutenei zein etxebizitza egokitu zaien jakinaraziko zaie

Etxebizitza lortu duten horiek, bigarren zozketa batean parte hartuko dute. Bigarren zozketa honetan, etxebizitza lortu dutenei zein etxebizitza egokitu zaien jakinaraziko zaie zehatz-mehatz. Beraz, lehen zozketan, etxebizitzak norentzat izango diren jakin-gugu. Bigarren zozketan, etxebizitza lortu duten horiei zein etxebizitza tokatu zaien esango zaie.

IMANOL UBEDA _____

601 etxebizitza begibistan

Olarriondon

Babes ofizialeko etxeak	120
Etxebizitza tasatuak	120
Etxebizitza sozialak	23
Etxebizitza libreak	146
Guztira	409

Ugartondo

Babes ofizialeko etxeak	48
Etxebizitza tasatuak	48
Etxebizitza libreak	96
Guztira	192

Zer da zer?

Babes Ofizialeko Etxebizitzak

Eusko Jaurlaritzak emandako legezadapen eta araudien bidez araututako etxebizitzak.

Babes ofizialeko etxea tokatzen zaiei, Eusko Jaurlaritzak babestutako etxebizitzaren arloan herritarrentzat jartzen dituen dirulaguntzak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea dute.

Etxebizitza Tasatuak

Udalen araudien bidez araututako etxebizitzak dira, Olarriondo eta Ugartondoko jabe/sustatzaileekin onartutako hitzarmenen baldintzak bete behar dituzte.

Etxebizitza Sozialak

Udalaren jabetzako etxebizitzak dira, eta errentan esleituiko dira. Errenta horretan ordaindu beharko den prezio publikoa urtero zehaztuko da eta zerga-ordenantzen bidez arautuko da.

Etxebizitza Libreak

Salmenta librean salduko diren etxebizitzak.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Oñandegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

LATAILLADE

ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Arliztitxo 8, behe. 943 363 348 · 609 888 021

Euskararen erabilera igo egin da Usurbilen

Pasa den urrian Soziolinguistika Klusterrak euskarak Usurbilgo kaleetan duen presentzia neurtu zuen. Behaketa hartan eskuratutako datuak aurkeztu ziren astelehenean Sutegin. 2001ean egin zen azken azteralditik hona gora egin du erabilera. %54,4tik %57ra. Esperetakoa baino (%45,4) datu hobea. Bosgarren aldiz egin zen neurketan, hainbat aldagai kontuan hartu ziren; hala nola, adin-tarteak, sexua, edota hurrek komunikatzeko hautatzen den hizkuntzan duten eragina.

Otsailaren 12an aurkeztu ziren Soziolinguistika Klusterrak 2006ko urrian egindako euskararen kale erabilera datuak. Azteraldiak herriko hiru guneetan egin zituzten; Erdigunean, Santuenean eta Olarriondo-Galtzaragainan. Hizlari Larraitz Garmendiak adierazi zuenez, “helburua, euskararen erabilera mailari argazkia ateratzea zen”. Argazki hori kalean ateratakoa da, ez eraikin edo leku itxietan.

Behaketa isila

Aztartzaileek elkarrizketak entzun egin zituzten. Hitz egiten ari ziren herritarrei ez zieten inolako inkesta edo galdeketa egin. Txillardegiri deritzon neurketa ereduari jarraiki, norbakoak baino taldeko elkarrizketa hizkuntzak neurtu dira. Hau da, azterketa unean herritar bat euskaraz hitz egiten ari bazen, berarekin zeuden gainetarako pertsonak ere hala hitz egingo zutela espero zen.

Guztira, 2.113 herritar aztertu dira, Usurbilen bizi den biztanleri osoaren



USURBILGO UDALAREN DIRULAGUNTZAREKIN EGIN DA NEURKETA.

%41a. Bestalde, azteraldia lau saiotan burutu zen; bi orduko tarteetan eta hiru egunetan. Urriaren 18, 21 eta 22an. Garmendiak argitu zuenez, “Usurbilgo kaleetan ordu horietan jasotakoa da”.

Laur urtetik behin egiten den kale neurketak bosgarren edizioa bete du. Lehenengoa, 1989an osatu zen.

Udarregiko ikasleen laguntza

Azterketa lana hiru neurtzaileek osatu zuten. Baina beste hainbat herrietan bezala, Usurbilen ere zeregin horretarako laguntzaileak izan dituzte. Kasu honetan, Udarregi ikastolako ikasleak.

Bestalde, entzundako elkarrizketa saioetan herritarren profila ere kontuan izan dute. Hala, gizonezko eta emakumezkoa izan, horrek zenbaite-raino eragiten duen neurtu dute. Baita, helduak euskaraz hitz egitea

hurrek baldintzatzen duten ere.

Bitxikeriak

Jasotako zenbaki eta bestelako datu guztien artean, Soziolinguistika Klusterrak burututako kale neurketak bestelako datu bitxiak utzi dizkigu. Langileek ez euskaraz, ez erdaraz, beste hizkuntza batean hitz egiten ari ziren 40 elkarrizketa detektatu zituzten. Gehienak helduen artean eta larunbat arratsalde batean entzundakoak.

